

/2020 FORU DEKRETUA, XXXAREN XX(E)KOA, NAFARROAKO ESTADISTIKA
KONTSEILUAREN ANTOLAKETAREN ETA FUNTZIONAMENDUAREN
ERREGELAMENDUA ONESTEN DUENA

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen bidez, Nafarroako Estatistika Kontseilua sortu zen kontsultatzeko eta parte hartzeko organo gisa Nafarroako estatistika sisteman.

Foru lege horren azken xedapenetako hirugarrenarekin bat, Gobernuak antolaketaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onetsi zuen urriaren 19ko 308/1998 Foru Dekretuaren bidez.

Ikusita Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean egin aldaketak, beharrezkoa da Nafarroako Estatistika Kontseiluaren antolaketaren eta funtzionamenduaren erregelamendu berri bat onestea, egitura parte-hartzaileago batera egokitu behar baita.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluarekin bat, eta Nafarroako Gobernuak 2021eko XXXaren XX(e)(a)n egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat, dekretatzen dut:

Artikulu bakarra. Erregelamenduaren onespena.

Onetsi egiten da Nafarroako Estatistika Kontseiluaren Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua. Testu hori ondotik erantsi da.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzea.

Foru dekretu honek indarra hartutakoan, indarrik gabe gelditzen dira urriaren 19ko 308/1998 Foru Dekretua, Nafarroako Estatistika Kontseiluaren Antolaketaren

eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onesten duena, eta foru dekretu honetan xedatutakoaren kontra dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko ahalmena.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrari ahalmena ematen zaio behar diren xedapenak eman ditzan foru dekretu honen bidez onesten den erregelamendua bete, gauzatu eta garatu dadin.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

NAFARROAKO ESTATISTIKA KONTSEILUAREN ANTOLAKETAREN ETA FUNTZIONAMENDUAREN ERREGELAMENDUA

I. KAPITULUA. Izaera eta eremu funtzionala.

1. artikulua. Xedea.

Erregelamendu honen xedea da Nafarroako Estatistika Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzea. Horretarako, bete behar da Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean xedatutakoa erregelamendu honetan, eta, osagarri gisa, aplikatu beharreko gainerako araudia.

2. artikulua. Egoitza.

Kontseiluak Nafarroako Estatistika Institutuaren helbidean izanen du egoitza.

3. artikulua. Baliabideak.

Nafarroako Estatistika Institutuak emanen dizkio Kontseiluari behar bezala funtzionatzeko behar dituen baliabideak.

4. artikulua. Eginkizunak.

Kontseiluak aholkularitza, parte-hartze eta proposamen eginkizunak beteko ditu Nafarroako estatistika sistemaren jarduerari eta proiektuari dagokienez, eta zehazki:

a) Nafarroako estatistika planen eta estatistikako urteko programen proposamenak onestea.

b) Nahitaezko ebaluazio txostenak ematea Nafarroako estatistika planen nahiz estatistikako urteko programen helburuen betetzeari buruz.

c) Gomendioak ematea estatistika-unitateen eta informatzaileen arteko harremanei buruz, batez ere sekretu estatistikoaren aplikazio praktikoari buruz.

d) Txostenak ematea Nafarroako Gobernuak edo Kontseiluko edozein kidek eskatzen duen edozein gairi buruz.

II. KAPITULUA. Kontseiluaren antolaketa eta osaera.

5. artikulua. Organoak.

Hauek dira Kontseiluko organoak:

a) Osoko Bilkura.

b) Batzorde Iraunkorra.

c) Talde tematikoak

d) Lantaldeak

6. artikulua. Osoko Bilkura.

1. Honako hauek osatzen dute Osoko Bilkura:

- a) Burua, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularra.
- b) Buruordea, Nafarroako Estatistika Institutuko zuzendaria.
- c) Idazkaria, Nafarroako Estatistika Institutuari atxikita dagoen eta zuzendariak izendatu duen pertsona.
- d) Kideak, unitate, erakunde edo elkarte hauen ordezkariak:
 - Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu bakoitzaren ordezkaria, kasuan kasuko departamentuko estatistika organoko edo estatistika batzordeko kidea izanen dena, 11/1997 Foru Legean zehaztutakoa betez.
 - Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkari bat.
 - Iruñeko Udalaren ordezkari bat.
 - Estatistikako Institutu Nazionalaren ordezkari bat.
 - Ordezkaritza handieneko enpresen elkarteen bi ordezkari.
 - Ordezkaritza handieneko sindikatuen bi ordezkari.
 - Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ordezkari bat.
 - Erakunde sozialen bi ordezkari, buruak izendatutakoak.
 - Estatistika arloko lanbidean nabarmendu diren bi pertsona, buruak izendatutakoak. Batzorde Iraunkorrak proposatuak.

2. Nafarroako Estatistika Institutua zer departamenturi dagoen atxikita, horren titularrak izendatuko ditu Kontseiluko kideak, foru agindu bidez. Lehenago, Nafarroako Gobernuko departamentuek eta Kontseiluko kide diren gainerako erakundeek ofizialki jakinarazi beharko diote Kontseiluko idazkariari zer ordezkari titular eta ordezko izanen duten, eta horrek indarrean iraunen du legegintzaldi osoan, non ez den arrazoiren bat aldaketa bat proposatzeko. Nafarroako Gobernuko departamentuen ordezko ordezkariak ere izan beharko dute departamentuetako estatistika unitate edo batzordeetako kideak.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari izendatutakoek kargua utziko dute kasuan kasuko departamentuen titularrak kargua utzitakoan, edo departamentu baten antolaketan aldaketak egiteagatik titularrak ordeztea erabakitzen duenean. Enpresa erakundeek eta sindikatuek eta parte hartzen duten gainerako entitate eta erakundeek ordezkariaren izendapena alda dezakete, Kontseiluko

idazkariari jakinarazi ondoren.

Aldaketaren proposamena egin daiteke izendapena egin zen bide bera erabiliz eta arrazoiak emanez. Nafarroako Estatistika Institutua zer departamenturi dagoen atxikita, horren titularraren foru aginduaren bidez onetsiko da.

7. artikulua. Batzorde Iraunkorra.

1. Nafarroako Estatistika Kontseiluko Osoko Bilkurako kide hauek osatuko dute Batzorde Iraunkorra:

a) Estatistika Kontseiluko Osoko Bilkurako buruordea, batzorde honetako burua izanen dena.

b) Estatistika Kontseiluko Osoko Bilkurako idazkaria, batzorde honetako idazkaria izanen dena.

d) Foru Komunitateko Administrazioeko departamentuetako hiru ordezkari.

d) Kontseiluko Osoko Bilkuran parte hartzen duten gainerako instituzio eta erakundeetako hiru ordezkari.

2. c) eta d) letretako pertsonak 2 urterik behin berrituko dira.

Bere burua eskainiko dute Batzorde Iraunkorrean parte hartu nahi duten pertsonak. Edozein taldetan leku bat hutsik geldituz gero, beste taldeko ordezkariekin bete daiteke. Eskaerak gehiago badira lekuak baino, zozketa bat egingen da finkatutako kupoak gainditzen du(t)en talde(et)an.

Behar adinako ordezkariak ez badute bere burua eskaintzen, txanda bat ezarriko da talde bakoitzean, Kontseiluko Osoko Bilkurako kideen artean. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko departamentuetako ordezkarien kasuan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko departamentuen egitura indarduna ezartzen duen foru dekretuan zehazten den ordenari jarraituko zaio. Gainerako instituzio eta erakundeetarako, alfabeto-ordenari jarraituko zaio.

Legegintzaldia aldatzeak ez du ekarriko izendapenaren ordena berriz hastea; aitzitik, ordenari eutsiko zaio harik eta departamentu edo erakunde guztiak Batzorde Iraunkorreko kide izan arte. Horretarako, hark beharrezko moldaketak egingen ditu, dela egituran, dela erakunde parte-hartzaileetan.

3. Batzorde Iraunkorrek eginkizun hauek ditu:

- a) Kontseiluko osoko bilkurak prestatzea.
- b) Talde tematikoen gaineko ardura, barne dagoela haien eraketa, dinamizazioa eta kontrola.
- c) Buruari proposatzea nor nabarmendu den estatistikaren arloan Kontseiluko Osoko Bilkuran parte hartzeko.
- d) Estatistika Kontseiluko Osoko Bilkurak aholkularitza eta partaidetzarako eskuordetzen dizkion eginkizunak.

4. Batzorde Iraunkorrek hiru hilabetean behin izanen du bilkura arrunta, eta bilkura bereziak buruak deitu, bere ekimenez edo hiru kidek eskatzen duten aldiro. Erabakiak gehiengo soilaz hartuko ditu.

8. artikulua. Talde tematikoak.

1. Batzorde Iraunkorrek talde tematikoak era ditzake, jarduketa eremu hauen arabera:

- a) Ekonomia eta finantzak.
- b) Biztanleria eta demografia.
- c) Gizartearen estatistikak.
- d) Industria, merkataritza eta zerbitzuak.
- e) Ingurumena, nekazaritza eta energia.
- f) Zientzia, teknologia eta gizarte digitala.

2. Honako hauek parte har dezakete talde horietan: Estatistika Kontseiluko kideak, Nafarroako Gobernua, enpresa publikoak eta gizarte erakundeak, interesa badute talde tematikoaren gaiaren inguruan. Taldearen osaera Batzorde Iraunkorrak onetsiko du.

Nafarroako Gobernuko kideak departamentuetako estatistika unitateetako edo estatistika batzordeetako kideak izanen dira.

Talde tematiko bakoitzean, pertsona bat Nafarroako Estatistika Institutuari atxikita egonen da, eta huraxe izanen da idazkaria.

3. Talde tematikoen eginkizunak hauek izanen dira:

a) Koordinazio organoa izatea gizartearen eta Nafarroako Estatistika Kontseiluaren artean estatistikaren arloan.

b) Estatistika sustatu eta hedatzeko jarduketak proposatzea.

c) Proposamenak egitea estatistika planean eta programetan txertatzeko. Proposamen horiek arrazoituta egonen dira, eta txosten ekonomiko bat izanen dute, onetsi ahal izateko.

4. Talde tematikoek beren jardunari buruzko txosten bat prestatuko dute urtero Estatistika Kontseiluko Osoko Bilkurarako, haiek eta lantaldeek eginiko lanaren gaineko dokumentazioa erantsiz.

9. artikulua. Lantaldeak.

1. Talde tematiko bakoitzean, kideetako edozeinek proposatuta, lantaldeak era daitezke gai jakin batzuk aztertzeko. Lantalde bat eratzeko proposamenean, honako hau zehaztu behar da: lortu beharreko helburua, gauzatzeko egutegia (ezin da urtebetetik gorakoa izan) eta haren parte-hartzaileak. Iraupena urtebete luza daiteke, horretarako arrazoirik baldin badago.

2. Lantalde bat eratzeko proposamena talde tematikoak onetsi beharko du gehiengo soilaz, baita Batzorde Iraunkorrek ere.

Zeharkako gaien kasuan, talde tematiko bateko baino gehiagotako ordezkariak osa ditzakete lantaldeak. Batzorde Iraunkorrek onetsi beharko ditu.

3. Hauek dira lantaldeen eginkizunak:

a) Zenbait gai ezagutzea, prestakuntza handiagoa eta azterketa xeheagoa eskatzen dutenean haien konplexutasuna, zailtasun teknikoak edo berariazko inguruabarrak direla eta.

b) Batzorde Iraunkorrek Nafarroako estatistika sistemaren garapen egokirako beharrezkotzat jotzen duen beste edozein lan.

4. Talde tematikoari eman behar zaio lantaldeetan eginiko lanen emaitzen berri, jarduketan eta ondorioen zerrenda barne.

10. artikulua. Aholkularitza.

Kontseiluak, Batzorde Iraunkorrek, talde tematikoek eta lantaldeek adituak gonbidatzen ahalko dituzte saioetara, beharrezkotzat jotzen badute, eginkizunak hobeki bete ditzaten.

III. KAPITULUA. Kontseiluko kideak eta haien eginkizunak.

11. artikulua. Kontseiluburua.

Kontseiluburuak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Estatistika Kontseiluaren ordezkari izatea.

b) Bilkura arrunt eta berezietarako deialdia erabakitzea eta osoko bilkurako gai-zerrenda finkatzea; horretarako, kontuan izanen ditu, kasua bada, gainerako kideek

gutxienez 10 egun lehenago aurkeztutako eskaerak.

c) Osoko bilkuretan buru aritzea, eztabaidak moderatzea eta, aski justifikatuta dagoenean, bilkurak bertan behera uztea.

D) Bere botoarekin berdinketak desegitea, erabakiak hartu ahal izateko.

e) Kontseiluko Osoko Bilkurak hartzen dituen erabakien aktak eta ziurtagiriak ikus-onestea.

f) Kontseiluaren eskumeneko gaien bideratze egokirako komenigarriak diren barne araubideko jarraibide guztiak ematea.

g) Kontseiluaren jakinaren gainean jarritako prozedurak hobeki bideratzeko beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eta agiriak jasotzea.

h) Kontseiluburu gisa dagozkion gainerako eginkizun guztiak betetzea.

12. artikulua. Kontseiluko buruordea.

Kontseiluko buruordeak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Kontseiluburua ordezkatzea, kargua hutsik dagoenean, hura eri edo kanpoan dagoenean, edo legezko beste arrazoi batzuetan.

b) Kontseiluburuari dagozkion eginkizunetan laguntzea.

c) Kontseiluburuak berariaz esleitzen dizkion eginkizunak betetzea.

d) Kontseiluko idazkaria izendatzea.

e) Batzorde Iraunkorreko buru izatea, eta kide anitzeko organo horretako buruak berezko dituen eginkizunak betetzea.

13. artikulua. Idazkaria.

Hona hemen idazkariaren eginkizunak:

a) Kontseiluburuaren aginduz osoko bilkuretarako deia egitea eta kideentzako zitazioak egitea.

b) Osoko bilkuran parte hartzen dutenen komunikazio egintzak jasotzea, hau da, jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo haren ezagutza behar duten

bestelako idazki guztiak.

c) Arazoak ebazteko bidea prestatzea, osoko bilkuretako aktak idatzi eta baimentzea.

d) Osoko bilkuran onetsi diren kontsulta, irizpen eta erabakien ziurtagiriak ematea.

e) Osoko Bilkuraren administrazio jarduerak zuzentzea.

f) Osoko Bilkurak jasotzen dituen agirien sarrera erregistratzea, baita egiten dituenen irteera ere.

g) Osoko Bilkuraren erabakiak betetzea.

h) Osoko Bilkurako buruari laguntzea saioetan.

i) Batzorde Iraunkorreko idazkari izatea, Osoko Bilkurako idazkari gisa dituen eginkizun berekin.

14. artikulua. Kontseiluko kideak.

1. Kontseiluko kideei honako hauek dagozkie:

a) Bilkuretako deialdia eta eguneko gai-zerrenda gutxienez ere bost egun lehenago jasotzea. Gai-zerrendako gai buruzko informazioa epe berean izanen dute eskura.

b) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.

c) Boto eskubidea erabiltzea eta boto partikularra adieraztea, bai eta bere botoaren zentzua eta haren arrazoiak azaltzea ere. Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langile edo agintari gisa aritzen diren kontseilukideek ezin izanen dute bozketetan abstentzioa egin.

d) Galderak eta eskariak egitea.

e) Esleituak dituzten eginkizunak betetzeko behar den informazioa lortzea.

f) Beren izaerari berez dagozkion gainerako eginkizun guztiak.

2. Kontseiluko kideek ezin izanen dituzte beretako hartu Kontseiluari aitortutako ordezkaritza-eginkizunak, non ez zaizkien berariaz esleitzen arau baten bidez edo organoak berak kasu zehatz bakoitzerako modu baliozkoan hartutako erabaki baten

ondorioz.

3. Kontseiluko kideek izendapen pertsonal baten bidez dira kide; hortaz, ezin dute ordezkapena edo botoa beste baten esku utzi.

15. artikulua. Ordezkoak.

Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, kanpoan edo eri daudenean, eta, oro har, arrazoi justifikaturen bat dagoenean, idazkaria nahiz kontseilukideak ordezkatzeko ahalko dituzte, saio jakin baterako, berariaz ordezeko izendatutakoek, Kontseiluko idazkariari jakinarazi ondoren.

IV. KAPITULUA. Kontseiluaren funtzionamendua.

16. artikulua. Bilkurak.

Kontseiluak urtean behin gutxienez egingen du osoko bilkura arrunta, eta bilkura berezia, berriz, buruak horretarako deialdia egiten duenean edo batzordekideen heren batek horretarako eskaera egiten duenean.

17. artikulua. Deialdiak.

Kontseiluko osoko bilkurarako deia idazkiz egingen da bost egun lehenago, gutxienez ere, eta gai-zerrenda erantsiko zaio. Batzorde Iraunkorraren, talde tematikoen eta lantaldeen deialdia berrogeita zortzi ordu lehenago egingen da.

18. artikulua. Eraketa.

Kontseiluko Osoko Bilkura lehen deialdian eratutzat joko da kontseiluburua eta idazkaria, edo horien ordezekoak, eta kideen erdiak gutxienez biltzen direnean.

Bigarren deialdia lehenengotik ordu erdira egingen da besterik gabe, eta horretan

erabakiak hartu ahal izateko beharrezkoa izanen da gutxienez burua eta idazkaria, edo horien ordezkioak, eta Kontseiluko kideen heren bat egotea.

Hala ere, Kontseiluko Osoko Bilkura balio osoz eratutzat joko da, bilera berezian eta deialdirik gabe, kide guztiak elkartu badira eta aho batez erabakitzen badute eztabaidatu eta akordioak hartzea.

19. artikulua. Gai-zerrenda.

Kontseilukideek proposamen erabakiak aurkezten ahalko dituzte idatziz, eta horiek egiten den lehenengo osoko bilkuraren gai-zerrendan sartuko dira, betiere buruak hura baino hamar egun lehenago jaso baditu.

Hala ere, kontseiluburuari ez bazaio komenigarria iruditzen proposamena gai-zerrendan sartzea, horren arrazoiak azaldu beharko dizkio Kontseiluari, horrek eztabaida dezan sartu edo ez sartu, aitzinetik betiere. Orobat, edozein kidek eskatuta, ebatziko du bidezkoa den gai-zerrendatik kentzea hartan sartutako gairen bat.

20. artikulua. Erabakiak.

Erabakiak botoen gehiengo soilaz hartuko dira, eta buruak kalitatezko botoz deseginen ditu berdinketak.

21. artikulua. Aktak.

1. Kontseiluko Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren saio bakoitzean, idazkariak akta egingen du, non nahitaez zehaztuko baitira agertu direnen izenak, bilerako gai-zerrenda, tokia eta egun-orduak, eztabaidaturiko gai nagusiak eta harturiko erabakien edukia.

2. Aktan adieraziko dira, kideek eskatuta, hartutako erabakiaren kontrako botoa, abstentzioa eta horren zergatiak, edo aldeko botoaren esanahia.

Edozein kidek zilegi izanen du, halaber, bere mintzaldi edo proposamena osorik transkribatzeko eskatzea, baldin eta 48 orduko epean aurkezten badu bere mintzaldia zuzen islatzen duen testua, eta hala jasoko da aktan edo, bestela, haren kopia erantsiko da.

Gehiengoaren erabakiarekin ados ez dauden kideek boto partikularra ematen ahal dute idatziz, berrogeita zortzi orduko epean, eta erabakiari erantsiko zaio.

3. Kideek kontrako botoa eman edo abstenituz gero, ez dute erabakien ondorioz suerta litekeen erantzukizunik izanen.

4. Aktak hurrengo bilkuran onetsiko dira, baina zilegi izanen da idazkariak ziurtagiria ematea hartutako erabakien gainean, akta ondoren onestea ezertan galarazi gabe. Akta onetsi aitzin egindako ziurtagirietan, espresuki adieraziko da inguruabar hori.